

# Ezkontza eta familia espiritueltasuna



Familia Amoris Laetitia  
Año 2021 - 2022

*Egin klik  
hemen*

## Familiaren urtea



CONFERENCIA  
EPISCOPAL  
ESPAÑOLA

# Familia. Jainkoaren Hitzaren argitan

«Horregatik, familia osatu nahi izatea, Jainkoaren ametsean partaide izateko ausardia izatea da, Jainkoarekin amets egiteko gogoia izatea, Berarekin eraikitzaile izatera ausartzea, berarekin bat egin eta inor bakarrik sentituko ez den mundua eraikitzearen alde egitea». AL 321



## Motibazioa Frantzisko Aita Santuarekin

«Familiak bakean bizi nahi dugu, maitasuna eta ulermena sentiarazten dion giroan. Nola sor dezake familiak bere barruan giro abegitsua? Familian, senar, emazte eta seme-alabez gainera, Jesus dago, beraien artean bizi baita.»

«Zein garrantzitsua den sakramentuan Kristo bera agertzen dela senar-emazteei iragartzea! Beraiek ez daudela inoiz bakarrik, ezta etsita sentitzen direnean ere. Horregatik, sekretu hau argitu duten bikoteek gainerakoei helarazi behar diete, familia osoa grazia eta itxaropenez bete dezakeen "ahoz ahoko" bezala.»

«Ez da perfektu eta guztiz eratuta sortzen den familiarik, ez dago 'pret-aporter' familiarik. Inoiz ez dugu itxaropenik galtzen gure mugen eraginez, baina agindu zaigun maitasun eta elkartasunezko osotasuna bilatzeari ere uko egiten.»



## Lekukotasuna

«Hain zuzen ere, gure historian hainbat aldiz antzeman dugulako gure urritasuna eta hutsaltasuna, otoitzaldi hauei esker Jainkoak Misioa emankor bihurtzen duela jabetzen gara.»



## Otoitza

Eskerrik asko, Jauna, gure familian zaudelako. Eskerrik asko, zure indarrari esker, beti altxa gaitezkelako eta bidean jarraitu, zailtasunak, arazoak, ulertezintasuna gaindituta. Lagun iezaguzu maitasun-keinu berriak asmatzen, "maitatzen duena pozik bizi baita"; lagun iezaguzu zure bihotzean gure familiarentzat duzun ametsa gauzatzen. Amen



## Gogoeta egiteko

On Santos Montoya Calahorra eta La Calzada-Logroñoeko gotzain hautatua aurkezten dizuegu. Bideo honetan, "Ezkontza eta familia espiritualtasuna" gaiaren inguruan jarduten du.



## Sakontzeko

■ Amoris Laetitia irakurri

Amoris Laetitia, g. kap.

■ Gehiago nahi izanez gero, **klik egin hemen!**